



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

11. Ordenantza Fiskala Kanposantu eta Beilatokiko zerbitzuagatiko Tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauko 16. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Udal Hilerriko Zerbitzuagatiko Tasa ezarri da. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aurrean aipatutako abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan ezarritakoaren arabera izango dira.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zerga egitatea udal hilerriaren zerbitzuak egitea da: lurperatzeko eremua ezartzea, gorpua txikitzea, erraustea, gorpuen atsedenelekuak artatzea, eta Hilerriko Hileta Araudian ezarritakoarekin bat etorritik bidezko diren edo norbaitek eskaturik egin beharreko jarduerak guztiak.

III. ORDAINDU BEHARRA

3. ARTIKULUA

Tasa ordaindu beharra udal hilerriko zerbitzuren bat egiteko baimena ematen denean sortzen da, artapeneko zerbitzuak salbu utzita.

IV. SUBJEKTU PASIOA

4. ARTIKULUA

Subjektu pasibo zergadunak dira baimena edo zerbitzua eskatzen duten pertsonak eta, hala denean, emandako baimenaren titularrak.

V. SALBUESPENAK

5. ARTIKULUA

Jarraiko zerbitzuak salbuetsita daude:

a) Ongintzaren kargura asiloetxean izan diren pertsonak lurperatzea, baldin eta hilerriko osterak aipatu establezimenduen kontura bada eta hildakoaren senideek hiletarik ordaintzen ez badute.

b) Behar-behartsuak lurperatzea.

VI. ZERGA KUOTA

6. ARTIKULUA

1. Zerga kuota tarifa hauen araberako zehaztuko da:

KONTZEPTUA	EUROAK
1. Emakidak	
12 urterako nitxo baten emakidak	715,00
Hezurtegia 20 urterako ematea edo berritzea	278,45
2. Ehorzketa-eskubideak	
Horma-hobi batean lurperatzea	60,20
Hezurtegian lurperatzea	26,50
3. Beilatoki-zerbitzuagatik , gela erabiltzea, hilotza prestatzea eta hotz-ganbera barne hartzen duela	404,95
4. Errausketa-zerbitzuagatik	370,25

Nitxo emakidak ezin dira berritu, eta hezurtegienak 20 urterako soilik berritu ahal dira.

VII. KUDEAKETA ETA BILKETA

7. ARTIKULUA

1. Subjektu pasiboek eskatu behar dituzte zerbitzuak.

2. Tasa hau autolikidazioaren bidez eska dezake Udalak.

3. Nitxoak ixteko eta apaintzeko obrak eta bestelakoak egiteko Udalaren baimena behar da. Horretarako, baimena lortzeko eskatzaileek Hilerriko Zerbitzuagatiko Tasa ordaindu dutelako frogagiria aurkeztu beharko dute.

Baimena lortu gabe obraren bat eginez gero, Udalak ahalmena du nitxoan jarritako elementuak kentzeko eta egindako obrak ezabatzeko interesatuaren kargura.

4. Beilatoki-errausketa zerbitzuaren tasa zerbitzu horren enpresa emakidadunak kobratuko du.

8. ARTIKULUA

Emakidak eta lizentziak iraungitzat joko dira 6. artikuluan ezarritako epealdiak igarotakoan. Hala gertatzen denean, Udalak gorpukiak hilerrian horretarako berariaz ezarritako tokira eraman ahal izango ditu.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

11. Ordenantza Fiskala Kanposantu eta Beilatokiko zerbitzuagatiko Tasa

VIII.URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

9. ARTIKULUA

Zergaren ikerketari, zerga urratzeen kalifikazioari eta urratzeen zioz ezarri beharreko zehapenei dagokien guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean horretaz xedatutakoa beteko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Hilerriko Zerbitzuagatiko Tasa araupetu duen honako ordenantza berau argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249 zk.an argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte